

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



GIZARTE ERANTZUKIZUNEN ZUZENDARITZAREN MEMORIA

2014/2015 ikasturteko
jarduerak

**Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte
Erantzukizunaren Arloko Errektoreordetza**
Vicerrectorado de Estudiantes,
Empleo y Responsabilidad Social

www.ehu.eus

EDUKIA

1.	Kudeaketa iraunkorra	4
1.1	Ekintza zehatzak martxan jartzeko ikastegietarako diru laguntzak	4
1.2	Kudeaketa hobetzeko taldeak sentibilizatzeko eta indartzeko lana	4
1.3	Erosketa publiko arduratsua	5
1.4	Hondakinen kudeaketa arduratsua	5
2.	Hezkuntza curriculum	7
2.1	Irakasleak Garapenerako Lankidetzan trebatzea	7
2.2	Administrazio eta zerbitzuetako langileak Garapenerako Lankidetzan trebatzea	7
2.3	IkZren sustapena	7
2.4	Irakasleekin lan egiteko jardunaldiak	8
2.5	Campusa "laborategi" gisa	8
2.6	Sareetan parte hartzea	10
2.7	Prestakuntza praktikoa ikasleentzat	11
2.8	Garapenerako Lankidetzaren inguruko praktiken eta karrera amaierako proiektuen programa	11
3.	Jarduera solidarioak eta gizarte erakundeak	12
3.1	Hautazko kredituak aitortzea solidaritate eta kooperazio jarduerak egiteagatik	12
3.2	Medikuntzako ikasleen boluntariorza programa autokudeatua	12
3.3	Boluntariorzaren Azoka	12
3.4	Babesa gizarte erakundeekiko lankidetzaren hitzarmenei	13
	UNIKIDE programa	13
	Gizarte erakundeekin batera egindako jarduerak	13
3.5	Gizartearekin partekatzen	13

GIZARTE ERANTZUKIZUNEN ZUZENDARITZAREN MEMORIA. 2014/2015 IKASTURTEKO JARDUERAK

Duela hogeitertirik baino gehiagotik, planetako desoreka ekologiko, ekonomiko eta sozialek zer erronka ipintzen dizkiguten eta pertsonen nola eragiten dieten jakitun, unibertsitateak pixkanaka konpromisoa hartuz joan dira garapen iraunkorarekin. Ildo horretatik, egitasmo ugari sortu dira hainbat maila eta erritmotan, goi mailako hezkuntza erakundeak egun dauden bezala egotea ekarri dutenak.

UNCED Ingurumen eta Garapenari buruzko Mundu Batzordeak, Brundtland Batzordeak 1987an emandako txostenaren bidez, Garapen Iraunkorra kontzeptua txertatu zuen, eta honela definitu: *pertsonen egungo beharrianak betetzen dituen garapena, zeinak ez baitu arriskuan jartzen etorkizuneko belaunaldiak beren beharrianak betetzeko izango duten gaitasuna.*

Alde horretatik, UPV/EHUk bat egiten du UNESCOk 1988an XXI. Mendeko Goi mailako Hezkuntzari buruzko Mundu Adierazpenean jasotako kezkarekin: *Ikuspegia eta Ekintza¹, goi mailako hezkuntzaren misio eta balio funtsezkoak oraindik eta gehiago indartzeko eta sustatzeko; bereziki, garapen iraunkorraren eta gizarte osoa hobetzearen aldeko misioa.* Izan ere, hezkuntza da garapen iraunkorra lortzeko aldaketak eragin ahal dituzten tresnarik sendoenetakoa bat.

Bestalde, CRUE Espainiako Unibertsitate Errektoreen Biltzarrak, CADEP² Ingurumen Kalitatearen eta Garapen Iraunkorraren Lantaldearen bidez, ezartzen du goi mailako hezkuntza erakundeen esparruan Garapen Iraunkorraren kontzeptuak barne hartzen dituela ingurumen kalitatea, justizia soziala eta epe luzerako ekonomia ekitatiboa eta bideragarria.

Hezkuntza Ministerioak 2010ean argitaraturiko 2015eko Unibertsitate Estrategiak ere (EU2015) ildo beretik doa, gogoeta egiten baitu unibertsitateko gizarte erantzukizunaren inguruko lanerako ardatz zentral baten inguruan. *"Gizarte erantzukizuna funtsezkoa da unibertsitateak gizartearekin eta bere garaiarekin nahiz etorkizuneko belaunaldiarekin duen konpromisoan".*

UPV/EHUk, bere estatutuetan, hitzematzen du³ *ekonomia, gizarte eta ingurugiroaren jasangarritasunerako irizpideei jarraiki* eraman-gotitua aurrera eguneroko zereginak. Konpromiso horren indargarri, 2012-2017ko Plan Estrategikoaren ardatz nagusietako bat (V. ARDATZA) Gizarte Konpromisoari buruzkoa da; hain zuzen ere, esaten du jakintza eraikitze lanak konpromiso etiko garbia eta gizarte erantzukizuna duela, eta giltzarria dela herritarren belaunaldi berriak trebatzeko eta iritzia sortzeko. Era berean, konpromisoa hartzen du unibertsitate hedakuntzaren bidez gizarteko eta kulturako desberdintasunak murrizteko eta bizitza politiko, kultural eta sozialean partaidetza handiagoa ahalbidetuko duten egoerak sortzeko. Horretarako, martxan jarriko ditu zenbait sektore plan: kasurako, Berdintasun Plana eta Garapen Lankidetzako Lanerako Plana. Horrez gain, hitzematzen du unibertsitate komunitate inguruko arazo sozial eta kulturaletan gehiago inplikaturiko duela.

Ildo horretan, nazioarteko bikaintasun campusaren aipamena duen Euskampus proiektuaren helburu nagusietakoa da Iraunkortasunaren bidez lortzea unibertsitate bikaintasuna. Izan ere, uste osoa dago bikaintasunak barne hartzen dituela ingurumenarekin konprometituturiko eta kode etikoa eta jardunbide onetan oinarrituturiko campus solidario, osasungarri, iraunkor eta seguru baten printzipio eta balioak.

Espainiako estatuan, UPV/EHU aurrena izan zen Gizarte Erantzukizuna ardatz zuen errektoreordetza bat sortzen. Horrekin, agerian jarri zuen unibertsitate iraunkorago, independenteago, parte hartzaileago eta gardenagoa lortzeko zeukan konpromisoa. Errektoreordetza horrek Garapen Iraunkorraren inguruko politikak sustatzen ditu, eta politika horiek unibertsitateko gainerako errektoreordetzen eta egituren bidez gauzatzen dira.

UPV/EHUrentzat, Unibertsitateko Gizarte Erantzukizunak berekin dakar ingurumen iraunkorarekin konprometitutako kudeaketa politika ezartzea, eragina izango duena hala prestakuntzan nola ikerkuntzan, ezagutzaren transferentzian eta unibertsitateko eguneroko jardunean. Halaber, gizarteari ildo horretan lortutakoen berri ematea esan nahi du.

Memoria honen bidez, Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzak giza garapen iraunkorari laguntzeko egin dituen politika eta jardueren berri eman nahi da. Horrez gain, baina, erantzuna eman nahi zaie nazioarteko organismoek halako memoriak edo txostenak idazteko egiten dituzten eskaerei.

Memoria honek beharrezko informazioa emango die interesdun guztiei, eta, gainera, baliagarria izango da UPV/EHUk aipatu politiken bitartez garapen iraunkorraren alde egiten duen lana, unibertsitate komunitate osoarena, ebaluatzeko eta etengabe hobetzeko.

1 UNESCO, 1988ko urria.

2 Curriculumean Iraunkortasuna txertatzeko Gidalerroak, CRUE. CRUEren Lantaldearen Batzorde Exekutiboak 2005/04/18an Valladoliden egindako saioan onetsitako agiria. CRUEren Biltzar Nagusiak 2005/10/27an onartutako agiria. CADEPek 2011/06/17an Zaragozano unibertsitatean egindako osoko bilkuran onartu zuen berrikuspena, eta 2012ko martxoaren 9an Valentzian egindako osoko bilkuran zabaldu zuen.

3 1. artikulua

2010eko martxoan, UPV/EHUren Iraunkortasunerako Bide Orria Diseinatzeko Laneguna antolatu zen. Gizarte Erantzukizunaren eta Unibertsitate Hedakuntzaren arloko Errektoreordetzaren estrategiaren barruan sortu zen, hain zuzen ere, iraunkortasuni begira egin direnak identifikatzeko, indartzeko, ikusarazteko eta UPV/EHUren iraunkortasun plan estrategikoko bat egiteko baliatzeko, ingurumen eta gizarte kudeaketa kalitatezkoa lortze aldera.

Jardunaldian, UPV/EHUko iraunkortasunaren egoerari buruzko analisi orokorra aurkeztu zen (UPV/EHUren Iraunkortasunari buruzko Azterlana, 0. bertsioa), hau da, UAM Madrilgo Unibertsitate Autonomoan gauzatutako esperientzia praktikoa (hizlaria: Javier Benayas del Álamo, CRUE Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Biltzarra), eta, era berean, iraunkortasuna integratzeko epe labur-ertainerako jardun ildo nagusiak identifikatu ziren.

HELBURUAK	XEDEAK
1. INGURUMEN KUDEAKETA hobetzeko erakunde konpromiso alortzea	UPV/EHUk konpromisoa du ingurumen iraunkortasunarekin.
	UPV/EHUko ikastegi guztiek dituzte ingurumena hobetzeko planak.
	UPV/EHUk iraunkortasun sareetan jarduten du, EAEn, estatuan nahiz Europan.
2. IKERKUNTZA iraunkortasun irizpideekin indartzea	Unibertsitateak ikerkuntzaren arloan iraunkortasunarekin dituen konpromisoak hartzea eta gauzatzea.
	Iraunkortasun irizpideak ikerkuntzan txertatzea.
	Iraunkortasunaren gaineko eta aldeko ikerkuntza indartzea.
	Ikerkuntzak hezkuntza curriculumaren iraunkortasunari buruz sortzen dituen ezagutzen transferentzia sustatzea.
	Iraunkortasunaren inguruko ikerkuntza ikusaraztea, sozializatzea eta koordinatzea.
3. Iraunkortasuna HEZKUNTZA CURRÍCULUMEAN txertatzea	Iraunkortasunaren balioak eta irizpideak ematea gizarteari, bere plan, politika eta jardueretarako.
	Unibertsitateak hezkuntza curriculumaren arloan iraunkortasunarekin dituen konpromisoak hartzea eta gauzatzea.
	Irakasleak iraunkortasunaren inguruan gehiago sentsibilizatzea eta trebatzea.
	Titulazio eta programetan iraunkortasunaren gaia ezartzea eta koordinatzea.
	Unibertsitate curriculumari iraunkortasunaren gaineko ikerkuntzaren emaitzak aplikatzea.
4. Unibertsitate eragileak BOLUNTARIOTZAREN, PARTAIDETZAREN ETA KONPROMISOAREN inguruan mugiaraztea eta SENTSIBILIZATZEA	Baliabideak modu iraunkorrean erabiltzea sustatzen duten irakaskuntza eta ikaskuntza metodologiak garatzea.
	UPV/EHUko ikasleek oso ontzat jotzen du iraunkortasunaren gaia, eta aktiboki parte hartzen du.
	Irakasleak EAEko iraunkortasunaren parte aktiboa dira.
5. PROZESUAREN jarraitutasuna eta iraunkortasuna bermatzea: antolakuntza eta baliabideak, ezarpena, ebaluazioa eta jarraipena	Gainerako unibertsitate eragileek (AZPkoek, Ilek...) aktiboki parte hartzen dute iraunkortasunaren arloan.
	Iraunkortasun prozesuak beharrezko egiturak eta konpromisoa ditu UPV/EHUen.
	EAEko eragileek UPV/EHUko iraunkortasun prozesuan lagundu eta parte hartzen dute.

Bide Orrian azaltzen diren ildoak abian jartzeko, Gizarte Erantzukizunaren Zuzendaritzak bi bulego ditu gaur egun: [Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa](#) eta [Iraunkortasun Bulegoa](#). Gainera, unibertsitate komunitateak parte hartzeko organoa ere badu: UPV/EHUko Lankidetzaren Kontseilua, hain zuzen ere. Operatibitate arrazoiak direla eta, ez dira memorian jaso Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak abian jarri dituen jarduerak guztiak ([Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren Memoria](#)), baina, hala ere, behar-beharrezkoak izan dira UPV/EHUk ekitatearen, iraunkortasunaren eta giza eskubideen alde egiten duen lanerako.

Unibertsitate bat ezin daiteke iraunkorra izan, ez badie gogor heltzen erakundearen oinarriari. Ezin dezakegu iraunkortasunaren alde jardun, baldin eta kudeaketa hobetzeko prozesuekin ez baditugu irakaskuntza berritzeko prozesuak uztartzen, irakaskuntzak ikerkuntzako aurrerapenen emaitza izan behar baitu. Aldi berean, ingurunearekin lotutako sentsibilizazio jarduerak egin behar dira, gure unibertsitate komunitateari eragiteko. Horrenbestez, aurtengo ikasturteko jarduerak honako atal hauetan sailkatu dira:

1. KUDEAKETA IRAUNKORRA

Iraunkortasunaren Plan Estrategikoaren zati handi baten asmoa da kudeaketa iraunkorra sustatzea gure Unibertsitateko fakultate, eskola eta eraikinetan, gure jardueren inpaktua murrizte aldera. Horretan lagunduko du unibertsitate komunitate osoak, hark bultzatzen baititu benetan jarduerok.

1. 1. Ekintza zehatzak martxan jartzeko ikastegietarako diru laguntzak

Kudeaketa iraunkorreko prozesuak bultzatzeko politikari jarraituz, 2014an, Ingurumen Kudeaketa Hobetzeko Laguntzen Deialdi berri bat argitaratu da, Bizkaiko Campusarekin batera.

Ildo horretatik, ikastegiek kudeaketa iraunkorraren aldeko ekintzak abia ditzaten, UPV/EHUko ikastegiek EKOSCAN ziurtagiria ezarri dute, eta ikastegi askoko ikuskaritza egin ahal izan dute ziurtagiria akreditatzeko.

Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak ikastegien ingurumen kudeaketa hobetzeko sistematik ezartzeko eta egiaztatzeko laguntzen deialdi bat argitaratu zuen 2014ko martxoan, unibertsitateko hiru campusetarako. Horri esker, ikastegi askoko bi ikuskaritza egin ziren 2014ko azaroan. Hala, UPV/EHUko ikastegi guzti-guztiek konpromisoren bati eutsi diote ingurumen kudeaketa hobetze aldera.

BANAKO IKUSKARITZAK	
BIGARREN IKUSKARITZAKO IKASTEGIAK	
BIZKAIKO CAMPUSA	GIPUZKOAROKO CAMPUSA
Zuzenbide Fakultatea Bizkaiko Atala Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza	Zuzenbide Fakultatea

EGOITZA ASKOKO IKUSKARITZAK			
LEHEN IKUSKARITZAKO IKASTEGIAK:		BIGARREN ETA HIRUGARREN IKUSKARITZAKO IKASTEGIAK:	
BIZKAIKO CAMPUSA	GIPUZKOAROKO CAMPUSA	BIZKAIKO CAMPUSA	GIPUZKOAROKO CAMPUSA
Errektoreordetzaren eraikina (Leioa-Erandio eremua) Miguel de Unamuno Ikastetxea (Bilbo)	Carlos Santa María eraikina Joxe Mari Korta eraikina	Ekonomia eta Enpresa Zientzien E. (Bilbo) Bilboko Enpresa Ikasketen UE Esperientzia Gelak (Bilbo) Erizaintzako UE (Leioa-Erandio eremua) Zientzia eta Teknologia F. (Leioa-Erandio eremua) Medikuntza eta Odontologia F. (Leioa-Erandio eremua)	Irakasleen UE (Donostia)

Ikastegiek ingurumen kudeaketarekin duten konpromisoaren egungo egoera (webgunerako esteka):

1. 2. Kudeaketa hobetzeko taldeak sentsibilizatzeko eta indartzeko lana

Gaur egun, gure Unibertsitateko ikastegi eta eraikin gehienak hasiak dira Ekoscan ziurtagiria ezartzen (ziurtagiria lortzeko, 4 ikuskaritza gainditu behar dira: bata hasieran eta beste hirurak jarraipenekoak (urterokoak); horiek gainditu ondoren, Ekoscan Plus ziurtagiria lortzen da, eta urtero ikuskaritzak egin behar dira horri eusteko).

Ziurtagiri hori ezarrita, partaidetza eta gardentasuna sustatzen dituen tresna erabilerraz bat (EKOSCAN) aprobetxatu nahi izan da, gure Unibertsitateko ikastegiek ingurumena hobetzeko lanean inplika daitezen.

Prozedurari ekin zitzaionean, kanpo aholkularitza behar zen. Horregatik, 2004az geroztik, ikastegiek kanpo laguntza izan dute hala datuak nola egin beharreko urratsak antolatzeko.

2014ko ekainean, prestakuntza ikastaro bat antolatu zen campus guztietan, Ekoscan ziurtagiria ezartzeko beharrezko datu eta agiriak antolatzeko tresna baten berri emateko ikastegietan ziurtagiri hori sustatzen eta ezartzen duten AZPko langileei zein irakasle eta ikertzaileei (ikastegietako zuzendariei eta gainerako II interesdunei). Azken batean, Ekoscan ziurtagiriaren prozesua azaltzeko gida bat aurkeztu zitzaion, ikastegiek pixkanaka-pixkanaka lan hori egin dezaten Iraunkortasun Bulegoaren laguntzaz, zalantzak argitu eta ingurumena hobetzeko planak arinago ezartze aldera.

1. 3. Erosketa publiko arduratsua

Erosketa publiko arduratsua, hain zuzen ere, administrazio publikoek etikaren, ingurumenaren eta gizartearen irizpideak betetze-ko egiten dituzten produktuak edo zerbitzuak erostean datza.

Erosketa arduratsuaren barruan sartzen dira erosketa etikoa, erosketa berdea eta erosketa soziala.

UPV/EHUK etikaren, gizartearen eta ingurumenaren irizpideak txertatu nahi ditu kontratazioak esleitzean eta betetzean. Hori agerian jarri du errektorearen zirkularra argitaratuta, bertan UPV/EHUn kontratazioak egiteko irizpide sozialak, etikoak eta ingurumene-koak jaso baitira.

Horrela, UPV/EHUKo Kontratazio Zerbitzuak ingurumen eta gizarte irizpideak ezarri ditu hainbat kontratutan, eta IHOBE sozietate publikoaren laguntza izan du horretarako.

1. 4. Hondakinen kudeaketa arduratsua

Garapen iraunkorraren esparruan, UPV/EHUK gizartearekin dituen konpromisoetako bat campusetako, ikastegietako eta ikerketa unitateetako hondakinak modu arduratsuan kudeatzea da. Hori helburu, unibertsitateak hondakinen eta ingurumen kudeaketa- ren kudeatzailea jarri du bere antolaketa egituran.

Zerbitzu horren bitartez, unibertsitate komunitatean ingurumenarekiko kontzientzia sustatzeko ekintzak koordinatzen dira, eta arreta jartzen da jarduteko estrategia baten inguruko sentsibilizazioan, dinamizazioan eta inplikazioan. Horretarako, beharrezkoa da pertsona guztiek elkarrekin jardutea sortzen ditugun hondakinak modu arduratsuan kudeatzen.

LAN ILDO NAGUSIAK:

- Hondakin arriskutsuen arloan aplikatzekoa den **legeria betetzen dela** bermatzea: unibertsitatean egunero sortzen diren honda- kinak gaika biltzeari dagokion dokumentazio guztia erregistratzea eta jarraipena egitea.
- Unibertsitatearen eta ikastegien **hondakinak kudeatzeko protokoloa** osatzen eta ezartzen laguntzea: barne eta kanpo kudeake- ta, biltegiatzea, legezkatzea, dokumentazio kontrola, etab.
- Hondakinak kentzeko, berrerabiltzeko, balioztatzeko edo deuseztatzeko prozesua kudeatzen duen **kanpo enpresekiko harre- manak**.
- **Aholkularitza tekniko**a ematea ikerketaren arloko unibertsitate ikastegi eta egiturei, ingurumen kudeaketa hobe dezaten: bi- lerak egitea ikastegietako hondakin kudeaketaren arduradunekin, eta laguntza ematea hondakin jakin batzuen kudeaketa zeha- tzari buruzko kontsultetan.
- Ingurumenaren eta hondakin kudeaketaren arloko **prestakuntza eta informazio** orokorra eta/edo espezifikoa jorratzeko ikasta- roak diseinatzen eta ematen laguntzea.
- Hondakin arriskutsuak arduraz kudeatzeko eta **minimizatzeko** sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainak eta **ekintzak** koor- dinatzea.

2014/2015EKO JARDUERAK:

Ohiko kudeaketa lanez gain, honako jarduera hauek nabarmendu nahi ditugu, 2014ko irailetik 2015eko uztaileira bitartekoak:

- **Bisitak** egin dira hondakin arriskutsuak sortzen dituzten unibertsitate ikastegietako **instalazioetara**.
Ikasturte osoan, hainbat bisita egiten dira unibertsitate ikastegietako laborategietara. Bisita horien helburua da hondakinak ku- deatzeko barne prozesua ezagutzea eta prozesu hori hobetzeko aholkuak ematea. Bereziki nabarmentzekoak dira Gipuzkoako Campuseko Psikologia Fakultatera eta Bizkaiko Campuseko Arte Ederren Fakultatera egindako bisitak; bi ikastegi horiek txosten bana egiten dute hondakin arriskutsuak kudeatzeko prozesua abiatzeko beharrezko aholkuekin.
- **Koordinazio bilerak** egin dira hondakin arriskutsuak sortzen dituzten ikastegietako zuzendaritza taldeen arduradunekin:
Ikasturte osoan egiten dira bilerak, hala zuzendaritza taldeak berak nola hondakinak kudeatzeko teknikariak eskatuta. Zuzen- daritza taldeak eskatutako bileretan, batik bat hondakinak kudeatzeko barne prozedura jorratzen dute (ontzien stockak, hon- dakinak laborategietan eta biltegietan gordetzeko prozesua, barne erantzukizunak, etab.), eta teknikariak eskatutako bileretan, berriz, ikastegiko hondakinak kentzean sortzen diren gorabeherak aztertzen dira, eta gorabehera horiek murrizteko neurriak landu.
- **Laguntza tekniko**a eman zaie hondakin arriskutsuak sortzen dituzten ikastegietako **langileei**, sortzen diren hondakinak murriz- tearen inguruko zalantzak argitzeko eta kudeatu beharreko hondakinen edukiontzia egoki bereizteko, sailkatzeko, gordetzeko eta etiketatzeko.
- **Ekonomikoki kudeatu** da UPV/EHUK unibertsitateak urtero sortzen dituen hondakinak kudeatzeko jartzen duen aurrekontu saila.
Zerbitzu horrek hondakin toxiko zein sanitarioen bilketen fakturazioa kudeatu du (albaranak jaso, berrikusi, kontrastatu eta fak- turak ordaindu).
Era berean, ENRESA enpresa nazionalak hondakin erradioaktiboak biltzeko egiten duen lanaren fakturak ordaindu dira, baita EJRen tasak ere, lan hauei dagozkienak: UPV/EHUKo instalazio erradioaktiboak urtero berrikustea, irekitzea, aldatzea eta bertan behera uztea. Horrez gain, kanpo enpresa baimenduek instalazio erradioaktiboetako langileei urtero egiten dizkieten dosime- trien fakturak ere ordaindu dira.
- Hondakin arriskutsuen **zamalanak egiaztatu dira** salgai arriskutsuen errepide garraioari buruzko ADR araudiak eragindako ikastegietan (Zientzia eta Teknologia Fakultatean, Kimika Fakultatean, Bilboko Ingeniaritzako GETen eta Farmazia Fakultatean).

UPV/EHUko hondakinak kudeatzeko teknikariak, ikasturte osoan, egiaztatze lan horiek egin ditu; hain zuzen ere, garraiolariaren eta garraioibidearen dokumentazioa gainbegiratu du, ibilgailuaren ekipamendua ikuskatu du, eta hondakinak kargatzeko prozesua egiaztatu du (hondakinak etiketatzea eta ontziratzea, paletak egoki eta seguru jartzea eta kargatzea, kargaldian eta kargaren ondoren kontrolak egitea, garraio gutunak ematea...). Gainera, hondakinak kudeaketa enpresa baimenduaren instalazioetan utzi arte garraiolariak berekin eraman behar duen dokumentazioa izenpetu du.

- Hondakin arriskutsuak kudeatzeko nahitaezko **administrazio dokumentazioa kudeatu da**, bat eginez EJren Ingurumen Sailaren Ingurumen Informazioa Integral Kudeatzeko Sistemarekin (**IKS-eeM**): lekualdatzeen jakinarazpenak, onarpen agiriak eta kontrol agiriak aztertu eta sortutako hondakinen gaineko jarraipena egin.

- **Hondakin sanitarioak kudeatzeko planak** (HSKP) idatzi dira, eta unibertsitate ikastegiak EAEko **Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan** (HAETE) inskribatu dira.

2015eko martxoan, EJKo Osasun Sailari eskatu zitzaion onartzeko Leioako Campuseko Biofisika Unitatearen eraikin berriaren HSKP. Halaber, Ingurumen Sailaren aurrean izapidetu zen ikastegi hau HAETEn inskribatzeko prozedura.

Prozedura horri berari jarraitu dio Bizkaiko Campuseko Mediku Zerbitzuak ere: 2015eko uztailan, hondakin arriskutsuen ekoizlearen komunikazioa aurkeztu zen, eta ikastegi hori EJKo HAETEn inskribatzeko eskatu zen.

- Joxe Mari Korta Zentroan produktu kimiko sukoiak eta hondakin kimikoak **gordetzeko gunetarako sarbidea kontrolatzeko protokoloa** diseinatzen parte hartu da, hiru alderditan: antolakuntzan, alderdi operatiboan eta administrazioan (2014ko urria). Protokoloa ikastegiak berak eskatuta egin zen, Gipuzkoako Campusek administrariarekin koordinaturik.

- Hondakin toxiko eta arriskutsuak biltzean sortzen diren **gorabeherak kudeatu dira**; gorabehera horiek tartean dauden ikastegiei eta pertsonari jakinarazten zaizkie, eta UPV/EHU hondakin arriskutsuak sortzen eta/edo kudeatzen dituzten langileen datu batura osatzen duten pertsona guztiei helarazten zaizkie. Gorabeherak prestakuntzaren ikuspuntutik lantzen dira: hau da, ahalegina egiten da denen artean hondakin bilketa guztietako alderdi onetatik eta hutsegiteetatik ikasteko.

- UPV/EHUko ekoiztutako hondakin arriskutsuak (toxikoak eta sanitarioak) kudeatzeko zerbitzurako baimena duten kanpo enpresak **kontratatzeko prozeduretan** parte hartu da:

- **PA 4/15**, "UPV/EHUko ekoiztutako hondakin toxikoak kudeatzeko zerbitzua"; SITA SPE IBÉRICA enpresari esleitu zitzaion, 2015eko uztailaren 20ko Gerentzia Ebazpenaren bidez: kontratazio espedientearen memoria eta baldintza teknikoaren plegua idaztea.

- **PN 59/15**, "UPV/EHUko ekoiztutako hondakin sanitarioak kudeatzeko zerbitzua"; STERILE SERVICES enpresari esleitu zitzaion, 2015eko uztailaren 29ko Gerentzia Ebazpenaren bidez: kontratazio espedientearen memoria eta baldintza teknikoaren plegua idaztea; eta balorazio batzorde teknikoan eta eskaintzen ebaluazio txostena idazten parte hartzea.

- **Material didaktikoak egin eta argitaratu dira**, UPV/EHUko langileek irakaskuntza eta ikerkuntza laborategietan sortzen diren hondakin arriskutsuak ondo kudeatzeko detektatu dituzten beharrezkoen analisis oinarrituta. 2014/2015 ikasturtean honako dokumentu hauek egin dira:

- *UPV/EHUko hondakin arriskutsuak sailkatzeko eta bereizteko iradokizunak.*
- *Hondakin arriskutsuak behar bezala ontziratzeke jardunbide egokiak.*
- *Produktu kimikoak eta hondakin arriskutsuak laborategietan gordetzeko gomendioak.*
- *Erreaktiboak eta hondakin arriskutsuak manipulatzeko. Jardunbide egokiak.*
- *Laborategietan ahalik eta hondakin gutxienezko irizpideak.*
- *"UPV/EHU salgai arriskutsuen zama-lan egiaztatzeke (check-list) gida", ADR araudiak agintzen duen ikastegietan lan egiten dituzten langileentzat.*
- *"Irakaskuntza laborategietako hondakinak" posterra egin dute Zientzia eta Teknologia Fakultateko Kimika Organikoa II eta Ingeniaritza Kimikoa sailtako irakasle batzuek, UPV/EHUko Iraunkortasunaren aldeko Berrikuntzarako Laguntzen 2014ko Deialdiaren harira.*

- **Prestakuntza eta sentsibilizazio saioak** eman dira etengabe, ingurumenari eta bereziki hondakin arriskutsuen kudeaketari buruzko ikastaro eta mintegien bitartez.

2015eko ekainean, "**Gestión de residuos peligrosos en la UPV/EHU: procedimiento, clasificación y minimización**" izeneko bi ikastaro egin dira, bat Bizkaiko Campusean eta bestea Gipuzkoakoan.

- **Hartzaileak**: UPV/EHUko ikastegi, sail eta laborategietan hondakin arriskutsuak kudeatu eta ekoizten dituzten langileak, eta hondakin horien kudeaketan ardura duten langile teknikoak (AZPkoak, IIak eta doktoregaiak).

- **Helburua**: hondakin arriskutsuen kudeaketari buruzko alderdi oinarritzkoenak irakastea UPV/EHU hondakin arriskutsuen lan egiten dutenei; lanean baliatu behar diren gai nagusiak errepasatu; hondakinak murrizteke eta arriskutsuak ez izateko neurriak sustatu; hondakinak laborategian bertan berreraultzeko, berreskuratzeko edo tratatzeko aukerak aztertuz; edo erosketak arrazionalizatuz, hondakinak murrizteke.

- **Partaidetza**: 133 pertsona egin dute ikastaroa (89k Bizkaian eta 44k Gipuzkoan). Partaideen % 57 irakasle eta ikertzaileak dira, % 23 AZPkoak, eta gainerako % 20ak doktorego ikasleak edo UPV/EHUko beste ikertzaile batzuk.

- **Ebaluazioa**: ikastaroa amaitzean, partaideek ebaluazio inkesta bat bete dute: zenbait esaldi proposatu zaizkie, eta horiekin zenbateraino dauden ados adierazi dute. Gero, laburpen bat egin da lortutako emaitzekin (emandako bi ikastaroen balorazioa):

- Bi ikastaroen batez besteko puntuazio txikiena 10etik 7,6koa da (baliatutako denboraren egokitasuna). Alde horretatik, askotariko iritziak daude: batzuek (gutxienez) uste dute denbora nahikoa egon dela landutako edukia aintzat hartuta, eta beste batzuek (gehienek), berriz, pentsatzen dute edukia denbora gutxiagoan ere landu zitekeela.
- Batez besteko puntuaziorik onena 10etik 8,8koa da (lekuen eta datuen egokitasuna). Era berean, 8,7ko puntuazio eman diote hizlariak gaiaren inguruan zuen ezaguerari.

- Gainerako batez besteko puntuazioak 7,8, 8,5 eta 10 bitartekoak dira, eta nabarmentzekoa da alderdi hauek lortu duten puntuazioa: irakaslearekiko harremana (8,4), antolakuntza (8,2), landutako edukiaren baliagarritasuna, zalantzak argitzeko modua eta helburuen lorpena (8,1).
- Gogobetetze maila orokorra 8,05ekoa da 10etik.
- Alderdi positibo aipagarrienak hauek dira: ikastaroaren praktikotasuna eta erabilgarritasuna, azalpenen argitasuna, irakaslearekiko gertutasuna, antolakuntza eta partaidetza.

Hurrengo ikastaroak hobeto emateko, iradokizun hauek egin dira:

- Zalantza pertsonalak modu "pertsonalizatuan" argitzea.
- Edukia eskura dagoen denborari egokitzea eta zalantzak argitzeko denbora gehiago jartzea.
- Komunikazioa hobetzea: ahalegin handiagoa egitea hondakin arriskutsuak sortzen eta/edo kudeatzen dituzten langile guztiak joan daitezten saioetara: deialdi zuzenagoa.
- Partaide kopuru txikiagoa jartzea ikastaro bakoitzean.
- Gehiago azpimarratzea tratamendu plantan gauzatzen diren prozesu fisiko-kimikoak. Ikastaro praktikoagoak izatea.
- Master eta doktoregoko ikasleei parte hartzeko aukera ematen jarraitzea, edota ikasleentzako ikastaro espezifiko bat antolatzeko aukera aztertzea.

2. HEZKUNTZA CURRICULUMA

Ikasleak beren unibertsitate curriculumaren bidez iraunkortasunean trebatzea da Errektoreordetza honen helburu nagusietako bat. Badakigu, ordea, nahi ditugun emaitzak lortzeko irakasleekin egin behar ditugula urratsak lehendabizi.

Hori dela eta, ahalegin handia egiten dugu irakasleekin lan egiteko, haiekin hausnartzeko nola eta zer tresnarekin izan dezakegun eragin zuzena gure titulazioen eduki akademikoan. Gainera, gero eta titulazio gehiagok txertatzen dute iraunkortasunaren ikuspuntua irakasgaietan, gradu amaierako lanetan eta/edo nahitaezko praktiketan. Izan ere, ikuspuntu horrek eragina du diziplina ikaskuntzan, eta gizarte erantzukizunaren alderdiak jorratzen ditu.

2. 1. Irakasleak Garapenerako Lankidetzan trebatzea

Alde horretatik, "*La Cooperación Universitaria al Desarrollo (CUD), incorporación al curriculum*" ikastaroa ematen da campus guztietan irakasle eta ikertzaileentzat (II), 8 orduz. Ikastaroaren helburua da garapenerako lankidetzaren arloan prestakuntza sakonagoa ematea beren eskoletan Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren (GUL) lantzen duten edo landu nahi duten UPV/EHUko langileei, eta hori curriculumean lantzeko tresna praktikoak ematea.

Era berean, unibertsitateek garapenerako lankidetzaren inguruko jokabide kodearekin bat egiteko hartu duten konpromisoaz hausnartzeko gaitasunak lantzen dira, eta GULak zenbati irakaskuntza esperientzian dituen oinarritzko ezaugarriak sakondu. Ikastaroetan 22 irakasle eta ikertzailek parte hartu zuten, 14 emakumek eta 8 gizonek, denak ere hiru campusetako diziplina eta ikastegi desberdinetakoak.

2. 2. Administrazio eta zerbitzuetako langileak Garapenerako Lankidetzan trebatzea

Unibertsitate langileak gai horietan trebatzeko lan ildoari jarraikiz, Lankidetzaren Bulegoko teknikariei "Generoa eta Garapenerako Lankidetzaren" gaiaren inguruko prestakuntza eman zaie. horri esker, bulegoaren webgunean generoari buruzko atal berri bat jarri dugu:

— <http://www.ehu.es/es/web/oficop/zertan-ari-gara->

2. 3. IkZren sustapena

Irakaskuntza berrikuntzaren esparruan, uste dugu **Ikaskuntza Zerbitzua unibertsitate curriculumari eusteko tresna bat dela**.

2015eko maiatzean, CRUE-Iraunkortasuna Batzorde Sektorialak (lehengo CADEPEk) "Institucionalización del Aprendizaje-Servicio como estrategia docente dentro del marco de la Responsabilidad Social Universitaria para la promoción de la Sostenibilidad en la Universidad" izeneko agiri teknikoak onartu zuen. Agiri horrek **IkZ Espainiako unibertsitateetan instituzionalizatzearen** alde egiten du, curriculumari eusteko, gizarte bidezkoagoa sortzen laguntzeko, eta ikasleei gaitasunak garatzeko bid ematen dieten ikaskuntza akademiko eta sozialak hobetzeko.

Instituzionalizatzearen azken helburua da metodologia hori sustatzea eta unibertsitatean erabiltzea, ikasleek ikaskuntza helburuekin loturiko zerbitzu bat gauza dezaten komunitatean. Gaur egun, Erantzukizun Zuzendaritzak, metodologia horretan eskarmentu handia duten irakasle kualifikatuekin batera, instituzionalizatze lan horretan dihardute UPV/EHU.

— <http://www.ehu.es/es/web/iraunkortasuna1/ikaskuntza-zerbitzua>

Horren harira, aurtengo ikasturtean laguntza eman zaio **Vitoria-Gasteizko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolak (GLUE)** 2014ko irailean abiatutako proiektuari. Horren helburua da ikasleei gaitasunak garatzen laguntzea eta irakasleei estrategia berriak irakastea.

Eskolako bertako irakasleen ekimenez abiarazi zen proiektua, Ikastegiko Zuzendaritzaren laguntzarekin. Eskolan eskainitako lehendabiziko IkZ programa da, eta hauxe du helburu nagusia: ikasleak ezagutzara gerturatzea eta gizarteko errealitateak eta arazoak aztertzea, hezkuntzarekin loturikoetan arreta berezia jarritz. Horretarako, ikasleei aukera ematen zaie ikaskuntza komunitateen inguruko proiektu batean parte hartzeko Vitoria-Gasteizko Sansomendi IPIn. Azken batean, ikasleei gizarte langintzak esparru horretan duen egitekoaz hausnarrarazten zaie. Proiektua bi zatitan egiten da; lehen zatia abenduan amaitzen da, eta 14 ikaslek parte hartzen dute.

Halaber, hainbat ikastegitako irakasleei aholkuak eman zaizkie aldian-aldian, metodologia hori beren irakaskuntza programetan ezar dezaten; kasurako, Erizaintzako UEko eta Esperientzia Geletako irakasleei, Bizkaiko Campusean.

2. 4. Irakasleekin lan egiteko jardunaldiak

2011. urteaz geroztik, urtero irakasleentzako mintegiak antolatzen dira unibertsitate curriculuma hobetzeko estrategia parte hartzaile bat diseinatze aldera. Hala, **uztailaren 9an eta 10ean, irakasle eta ikertzaileentzako "La sostenibilización curricular" izeneko mintegia hasi zen**, irakaskuntza egoera onena mahai gainean jartzeko edo lortzen saiatzeko: nolakoa behar du curriculumak? Nola eman behar dira eskolak? Titulazioaren mailan, ikasketa planaren mailan, irakasgaiaren mailan ala unibertsitate osoaren mailan? Backcasting metodologia erabili zuten hori guztia lantzeko. (Egitaraua eta informazio guztia eskuragai dago hemen: — <http://www.ehu.es/es/web/iraunkortasuna/iil-mintegia-2015>)

2015eko uztailean egindako mintegi hori ikaskuntza erdi-presentzial baten (blended learning) lehen urratsa izan zen.

Aurrez aurreko mintegian, 2015eko uztailearen 9an eta 10ean, Backcasting metodologia azaldu zen, eta, gainera, irizpideak, ikuspegia eta gertaleku posibleak zehaztu zituzten arloen edo diziplinen arabera osatutako taldeek. Horrez gain, Iraunkortasunaren aldeko Berrikuntzarako Laguntzen 2014ko Deialdian onartutako proiektuak aurkeztu ziren.

2015eko irailetik aurrera ikastaroaren online zatia abiatuko da, Moodle plataforma baten bidez, hori ezarri nahi den eta ahal den aztertzeko.


Ondoren, 2016an, aurrez aurreko mintegi bat egingo da estrategia ikuspegi ebaluatzeko eta jarraipena egiteko.

2. 5. Campusa "laborategi" gisa

Iraunkortasunaren arloko Berrikuntzarako Laguntzen II. Deialdiari dagozkion laguntzak esleitu dira. Laguntza horien bidez, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean iraunkortasunaren kultura sustatuko duten proiektuak bultzatu nahi dira. Horretarako, bada, unibertsitateko curriculumean edo kudeaketan aldaketak eragingo dituzten proiektu berritzaileak diseinatzeko eta garatzeko laguntzak ematen dira.

Iraunkortasunaren arloko Berrikuntzarako Laguntzen II. Deialdian onartu egin dira aurkeztutako 11 proiektuak. Proiektuok unibertsitatean aplikatu behar dira (Campusa laborategi gisa), eta askotariko gaiet buruzkoak dira: gizarteko eta hezkuntzako erronkak, partaidetza soziala, erosketa berdea, energia berriztagarriak, hondakinen kudeaketa eta energia eraginkortasuna unibertsitate komunitatearen partaidetzarekin hobetzeko estrategiak, besteak beste. Taldeak irakasleek, administrazio eta zerbitzuetako langileek eta ikasleek osatzen dituzte. Gainera, proiektuok talde partaidearen irakaskuntzarekin bat egiten dute, eta, aldi berean, Campusean iraunkortasunarekin dauden arazoetarako irtenbideak proposatzen dituzte.

Iaz bezala, balorazioa ona izan da. Horrenbestez, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak Iraunkortasunaren arloko Berrikuntzarako III. Deialdia argitaratuko du 2015eko uztailean.

<p>Instalazio fotovoltaiko bat monitorizatzea eta iraunkortasuna aztertzea</p>	<p>Proiektu honen helburua da instalazio honen jokamoldea monitorizatzea eta graduako eta masterreko ikasleekin lan egitea, instalazioaren iraunkortasuna baloratzeko datu eta irizpideak lantzeko eta aztertzeko aplikazioen diseinuak proposatuta.</p>
<p>Kostu eta potentzia gutxiko aerogeneradore baten diseinua hobetzea</p>	<p>Metodo analitikoak ikertzea, aerogeneradorearen palaren azterlan aerodinamikoa egiteko; horrek ahalbidetu egiten du palen diseinuen efizientzia onak izatea operazio gunean. Gutxienez pala diseinuetako bat ekoitziko da, eta Bilboko IGETen dagoen aerogeneradorean probatuko dira (Berrikuntzarako laguntzak, 2013).</p>
<p>e-betex: campus arteko ekimena, open sourcearen eta elektronikaren printzipioei jarraikiz energia berriztagarriak darabiltzaten gailu elektronikoak diseinatzea, eraikitzea eta zabaltzea.</p> 	<p>Energia berriztagarriak erabiltzea sustatu nahi duen proiektuaren bigarren fasea da. Ikasle-irakasle taldeak bultzatzen dira, ezagutza irekiarekin eta elektronikaren etikoarekin lan egiteko, printzipio horien arabera garatutako elektronikaren gailuak diseinatzea, dokumentatzea eta zabaltzea. Ezagutza guztia irekian zabalduko da, Euskadiko burujabetza teknologikoaren elkartearen webgunean txertatutako webgune baten bidez (www.burutek.org).</p> <p>Prototipoak ingeniari tekniko lau eskoletako ikasleen gradu amaierako lan bidez gauzatuko dira: diziplina askotariko taldeetan lan egingo dute, irakasleekin, Burutekekin, ISFrekin eta Bilboko IITUEko FreeJaus ikasleen taldearekin.</p>

<p>Kontsumo elektrikoaren neurgailua - neurGAI</p>	<p>Kontsumo elektrikoaren neurgailu simple eta merke bat diseinatu, egin eta EHUren eskura jartzea. NeurGAI izena izango du. Kontsumo elektrikoak ezagutu, neurtu eta kontrolatzearen inguruko sentsibilizazioa bultzatzeko helburuarekin egiten da.</p> <p>Webgune bat prestatuko da neruGAIren dokumentazioarekin (eskuliburua, zehaztapenak) eta sentsibilizazio eta dibulgaziorako materialekin eta neurGAI unitate batzuk unibertsitatearen eskura jartzea.</p>
<p>Gizarte hezkuntzako eta gizarte partaidetzako erronkak gazteen lonjetan</p>	<p>Proiektu honek aldaketa proposatzen du Bilboko Irakasle Eskolako Gizarte Hezkuntzaren Graduan. Helburua da gazteen lonjen esparruan dauden erronkak eta jardunbide arrakastatsuak identifikatzea. Horretarako, ApS metodologia erabiliko da 50 ikasleekin, 7 irakasleekin, Susterrako 4 hezitzaileekin eta BFAko teknikariek. 2014/2015 eta 2015/2016 ikasturteetako 5 GRALetan izango du eragina, baita Graduako bigarren lauhilekoko irakasgai batean ere.</p>
<p>Gradu Amaierako Lanetan iraunkortasuna txertatzea</p>	<p>Proiektuaren helburua da diseinu eta kudeaketa metodologia ("GRAL iraunkorrak / TFG sostenibles") ezartzea, gutxienez, UPV/EHUko ingeniartzako graduatan ematen diren titulazioetako GRAL batean. Iraunkortasunaren ikuspegia sartzea lagungarri izango da hezkuntza aldaketa ahalbidetzen duten zeharkako eskumenak garatzeko unibertsitateko kideen arteko agenteengan. Hau da metodologiaren alderdi garrantzitsuena: ikaslea eta tutorea Garapen Iraunkorraren kontzeptu esparrura hurbiltzea (Iraunkortasunaren eskuliburu praktikoaren bidez). GRALen kudeaketa integrala egiteko tresna da, iraunkortasuna zeharkakotasunez ezartzen duena proiektua eratzeko zereginetan. "Iraunkortasunari buruzko azterlana" izeneko txostena sortzen du, GRALaren dokumentazio teknikoari balio erantsia emanez. Fitxategiak Word editagarriak dira, eta Elkarlanen eskura daitezke. Aztertu egingo da komunikazio interaktiborako bide eraginkorra den, eta, gutxienezko betekizunak betetzen ez baditu, aurreikusi da aplikazio espezifikoak egitea Informatikako Graduaren GRALaren bidez.</p>
<p>Surf industriaren hondakinak kudeatzeko plana diseinatzea, "Ingurumen teknologiak" irakasgai eta/edo Ingurumen Ingeniaritzako landa lan bezala</p>	<p>Gero eta surf gehiago egiteak kudeatzen ez diren hondakin gehiago dakartza: ingurumena kutsatzen da edo berrerabiltzeko nahiz birziklatzeko egokitzat jotzen ez diren hondakinak dira, baina izan badira. Proiektu honen helburua da ingurumen teknologiak eta/edo ingurumen ingeniartzira irakasgaiak irakasten diren graduatan sartzea, GRALaren esparruan egin ahal izatea eragotzi gabe, ikasleek parte hartzea hondakinak kudeatzeko prozedura bat identifikatzen eta egiten, eta hondakin horiek berrerabiltzeko eta/edo berriz baloratzeko aukerak aztertzen, sektore horretako iraunkortasunari aplikatutako ikuspuntu teknikoak. Surf City Donostia klusterrak lagunduko du (surfaren industriaren agenteen taldea da, helburu duena jarraitutasuna bermatzea sektore orekatu, berritzaile eta lehiakorren antz).</p>
<p>Erosketa Berdeak Euskal Herriko Unibertsitatean</p>	<p>Ikerketa honek:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. EHU zein herri administrazioek erosketa iraunkorrak sustatzeko duten ahalmena aztertuko du. • 2. Erosketa eta kontratazio publiko iraunkorraren onurak hedatzeko dauden aukerak aztertu.
<p>Ikasleak eta AZPak iraunkortasunera hurbiltzea</p>	<p>Helburua da iazko proiektuari jarraipena ematea, iraunkortasun planaren irismena Fakultatera hedatuta. Ekintzak egingo dira hondakinen kudeaketa iraunkorraren, energia efizientzia handiagoa lortzearen eta laborategi, ikasgela eta bulegoetan papergintzako materiala aurreztearen inguruan. Gainera, Irakaskuntzako Iraunkortasun Planaren baitan, asmoa da areagotzea ikasleek iraunkortasunaren arloan duten Prestakuntza, iraunkortasun protokolo bat diseinatuta ikaslearen eta irakaslearen artean; bestalde, iraunkortasunarekin lotutako GRAL eta masterrak aurkeztuko dira. Lan iraunkorraren protokolo bat idatziko da, Farmazia Fakultateko ikasle eta AZP guztientzat balioko duena.</p>

Vitoria-Gasteizko Alde Zaharreko bizilagunen elkarteak: parte hartzeko diagnostikoa eta etorkizuneko egoerak

Proiektuaren helburu nagusia da parte hartzeko diagnostikoa egitea Vitoria-Gasteizko Alde Zaharreko bizilagunen elkartearen egoerari buruz. Herritarrak Artatzeko Alde Zaharreko Udal Bulegoak eskaera egin zion UPV/EHUko Gizarte Langintzako Eskolari, elkarte horien indarguneak eta ahulguneak aztertzen laguntzeko, bizikidetzako eredu komunitarioa sortze aldera. Proiektuak ahalbidetu egiten du etxebizitzaren gaia aztertzea Gizarte Langintzaren esparrutik: ikertu egiten dira Alde Zaharrean bertako bizilagunen bizi kalitatea areagotzeko gizarte baldintzak. Bestalde, parte hartzeko diagnostikoa egingo da (Ekintza Partaidetzako ikerketa metodologia –IAP–), arazo nagusiak identifikatuta eta proposamen batzuetan aurrera eginda. Metodologia honek ahalbidetu egiten du lan hori egitea, oinarri hartuta aztergai den komunitatea osatzen duten pertsona, erakunde eta taldeak; zehazki, beren beharrezko diagnostikoa egiteko eta atzemandako beharrezko konpontzeko hobekuntza estrategia eta proposamenak sortzen dira.

Irakaskuntza praktikak egitea baratze ekologiko batean



Proiektu honen helburua da baratze bat jartzeko Arabako Campuseko irakasleen esku, irakasgaietako praktikak egiteko baliabide izan dadin. Baratzea mantentzeko eta praktika horiek prestatzeko, Campuseko ikasleei nekazaritza ekologikoaren inguruko ikastaroak emango zaizkie.

Baratze ekologikoa “El Comedor de Jesús” jantokian dago, Vitoria-Gasteizko unibertsitate campusaren alboan. Salesen Monasterioa da jabea, eta doan laga zuten erabilera horretarako. Trukean eskatu zuten gizarte jantokira bertaratzeko diren etatik ikastaroan izena eman nahi dutenei horretarako baimena ematea, doan. Proiektua 2013ko deialdiarekin abiarazi zen.

Baratzeak zenbait onura ekarriko ditu:

- Irakasleek beren irakasgai aplikatuenetako praktikak egiteko modu bat da.
- Irakasle horiek beren irakasgaietako zeharkako gaitasunak lantzeko modu bat da.
- Ikastaroa egiten duten irakasleek beren graduatuko zeharkako gaitasunak praktikatzeko modu bat da; izan ere, zenbait graduatuko beste ikasle batzuekin edo gizarte jantokikoekin daude harremanetan; orobat, natura ingurumenarekin dute harremana, eta jarrera eta jokabide iraunkorragoak dituzte.
- Gizarte jantokira bertaratzeko diren pertsonak gizarteratzea erraztea.

2. 6. Sareetan parte hartzea

Curriculum iraunkor bihurtzeko beste lerro estrategiko bat da iraunkortasuna berritzeko sareetan parte hartzea, ikuspegi aberatsagoa lortze aldera, hezkuntza curriculumera kontzeptuak gehitzeko.

“Copernicus Alliance”

UPV/EHU “Copernicus Alliance” sareko kide aktiboa da: sarea garapen iraunkorra sustatzeko sortu zen, eta helburu du iraunkortasuna sustatzea eta ikertzea, Europako Goi mailako Hezkuntzan, gizartearekin lankidetzan.

— <http://www.copernicus-alliance.org>

Sareko kide izateak dakar ideiak trukatzeko saioetan parte hartzea; horietan, esperientzia garrantzitsuak azaltzen dira, eta unibertsitateen zereginari eta unibertsitateek komunitatea duten loturari buruz eztabaidatzen da.

“Copernicus Alliance” sareak bultzatu du UE42D Educadores Universitarios para el Desarrollo Sostenible proiektua (Europako Batzordearen ERASMUS LIFELONG LEARNING PROGRAMME programakoa, sare akademikoak sortzeko). Europako 52 unibertsitatek osatzen dute (besteak beste, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea), eta Gloucestershireko Unibertsitateak koordinatzen du (Copernicus Allianceren egoitza unibertsitatea da, eta Erresuma Batuan dago). Programa 2013ko uztailan onartu eta 2013ko urrian abiarazi zen, eta hiru urteko iraupena du.

ERASMUS sare akademikoak arlo akademiko zehatzetan kooperazio europarra eta berrikuntza errazteko diseinatu ziren. Lagungarri dira goi mailako irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko, europar dimentsioa definitzeko eta garatzeko diziplina akademiko jakin batean, berrikuntza sustatzeko eta metodologia eta jardunbide egokiak trukatzeko. Hori lortzeko, sarean egiten da kooperazioa, goi mailako hezkuntza erakunde, fakultateen eta unibertsitateetako sailen artean; halaber, elkarte eta enpresa profesionalak bil ditzake, beste erakunde batzuekin batera.



UE4SD Educadores Universitarios para el Desarrollo Sostenible proiektuak Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren (GIH) eta goi mailako kalitatea hobetzeko prozesuen arteko lotura du aztergai. UE4SDren helburua da gida estrategiko bat sortzea unibertsitate-entzat, GIHa bultzatzeko HE jardunbide akademikoan eta curriculumean; horretarako, aukerak identifikatzen eta sortzen dira unibertsitateko hezitzaileentzat, GIHen gaitasunak garatzeko garapen profesionalaren bidez. Helburu nagusia da bermatzea unibertsitateko irakasleek beharrezko gaitasun eta abileziak dituztela ikasleak prestatzeko eta beren zeregin profesionalean eta bizitza pertsonalean iraunkortasunari aurre egiteko.

— <http://www.ue4sd.eu>

Azpiraratzeko da UE4SD proiektuak UPV/EHUrekin loturik argitaratutako dokumentazioa:

- *State of the art report. Mejores prácticas, iniciativas y herramientas de desarrollo profesional en Educación para la Sostenibilidad para educadores universitarios en Europa.* <http://www.ue4sd.eu/outcomes/2014-12-16-14-08-40>
- *Leading practice publication. Mejores 13 ejemplos de prácticas sobre desarrollo profesional de educadores universitarios en el área de la Educación para la Sostenibilidad.* Praktiken adibide horietako bat UPV/EHUren Iraunkortasunaren aldeko Berrikuntzarako Laguntzen Deialdia da. <http://www.ue4sd.eu/images/2015/UE4SD-Leading-Practice-PublicationBG.pdf>

CADEP 2014 (2014ko urria, Bilbo)

Euskal Herriko Unibertsitateak partaidetza aktiboa du Ingurumen Kalitatearen, Garapen Iraunkorraren eta Arriskuen Prebentzioaren CRUEren Batzorde Sektorialean (CADEP). Hori dela eta, 2014ko urriaren 30ean eta 31n anfitrioi lanak egin ditugu Batzorde horren sei hilekoko bileran, eta, osoko bilerarekin batera, lan jardunaldia ere antolatu dugu. Gai nagusia UNESCOren Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari buruzko Munduko Konferentzia izan da: Nagoyan (Japonia) egitekoa zen, azaroan. UPV/EHUrentzat bereziki garrantzitsua da sarean egiten den lana, nazioan egiten dena; izan ere, uste dugu Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzak erraztu egiten diela ikasleei gaitasunak lortzea eta XXI. mendeko gizartearen, ingurumenaren eta ekonomia arazoei heltzeko beharrezko ezagutzak eskuratzea; orobat, uste dugu etorkizun iraunkorra lortzen laguntzen diela.

2. 7. Prestakuntza praktikoa ikasleentzat

Irakasleekin lan egiten den artean, Iraunkortasun Bulegoak ikasleei aukera ematen die iraunkortasuna hezkuntza curriculumean txerta dezaten.

2014an ahalegina egin zen unibertsitateko ikasleei prestakuntza emateko unibertsitate ikastegien kudeaketa hobetzeko gaien inguruan. Zehazki, Gipuzkoako Zuzenbide Fakultatean, Ekoscan kudeaketa taldeak ikastaroa eman zien bere ikasleei, ikastegia bera erabiltzen ari zen tresnen jakitun izan zitezten, kudeaketan ingurumen hobekuntzak sartze aldera.

Bestalde, 2015eko martxotik ekainera bitartean, Ingurumen Hezkuntza eta Garapena Unesco Katedrako Ingurumena eta Iraunkortasuna graduondoko ikasle batek gure Iraunkortasun Bulegoan egin zuen prestakuntza praktikoa. Denbora tarte horretan, "[Estudios universitarios y soberanía alimentaria](#)" ikerlana egin zuen, eta 2015eko Ilen mintegian aurkeztu zuen.

2. 8. Garapenerako Lankidetzaren inguruko praktiken eta karrera amaierako proiektuen programa

Programa honek ahalbidetu egiten du hainbat titulaziotako ikasleek nahitazeko praktikak edo karrera amaierako proiektuak garapenerako lankidetzaren inguruan egitea, Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako zenbait herrialdetan. Adierazle garbiek islatzen dituzte praktiken eta karrera amaierako lanen programa honek dituen emaitza onak, programan parte hartu duten ikasleen sentsibilizazioari eta jarrera solidarioak sustatzeari dagokienez; halaber, ikusi da UPV/EHUko ikasleek gero eta interes handiagoa dutela halako praktiken inguruan.

Martxan jarri zenetik 12. ediziora bitartean (2014/2015 ikasturtea), programa honek 14 unibertsitate ikastegitako 848 ikasle mugiarazi ditu. Ikasleen talde horrek 23 herrialde ibili ditu Latinoamerikan, Afrikan eta Asian, praktikak egiteko hogeita hamar bat kooperazio erakundek kofinantzatutako garapen proiektuetan.

12. edizioan (2014/2015) UPV/EHUko 77 ikaslek parte hartu dute programan. Ikasleen talde hori Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako 13 herrialdeetatik ibili da, praktikak edo gradu amaierako lanak (GRAL) garapenerako lankidetzaren inguruan egiteko.

Praktikak eta GRALak garapenerako lankidetzaren proiektuen inguruan egin dituzten ikasleen kopurua, sexuaren arabera 2014/2015 ikasturtea

	2014-2015	%
IKASLEAK	77	%100
EMAKUMEAK	58	%75,32
GIZONAK	19	%24,68

Gainera, programa hobetzeko neurri gisa, urterik urte finantzatzen da ikastegietako praktikumen ardura duen pertsona baten bigaia, gutxienez; oraingoan, Donostiako Irakasle Eskolako praktiken arduradunak Errepublika Dominikarra bisitatu zuen 2014ko apirilean, bere ikasleen praktika lekuak ezagutzeko eta betebeharrak zein diren zuenean ikusteko, hurrengo edizioetan hobekuntzak proposatze aldera. [Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa](#).

3. JARDUERA SOLIDARIOAK ETA GIZARTE ERAKUNDEAK

UPV/EHUK badaki zein den bere zeregina, profesional handien prestatzaile gisa; alabaina, uste dugu pertsonak prestatzeko erantzukizuna ere badugula: balioetan hezte gure erantzukizuna da. Hori dela eta, uste dugu funtsezkoa dela urteurrenaren egunean proposatzen diren jarduerak talde lana egitera behartzea, eta solidaritatea, berdintasuna eta gizarte justizia bezalako balioak praktikan jartzeaz hausnartzera behartzea.

Beraz, ikasturte akademiko honetan honako lan lerro hauek sustatzen jarraitzen dugu:

3. 1. Hautazko kredituak aitortzea solidaritate eta kooperazio jarduerak egiteagatik

UPV/EHUK 2012ko maiatzean onartu zuen Gradu ikasketen kredituen aitortzerari eta transferentzietan buruzko araudi nagusia <http://www.ehu.es/es/web/iraunkortasuna/aukera-askeko-kredituak>. Bada, 11. artikuluan ezartzen du UPV/EHUn matrikulatutako ikasle guztiek eskatu ahal izango dutela kredituak aitortzea unibertsitatean dauden artean solidaritate jarduerak egiteagatik; zehazki, gehienez ere 6 kreditu aitortuko zaizkie ikasketa plan guztian. Gehienez ere 3 kreditu onartuko dira ikasturte akademiko bakoitzean, eta kreditu 1 lanean emandako 30 orduko. Bestalde, ezartzen da aitortpen akademikoa egiteko, boluntariotza jarduerak ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak kudeatu edo bermatu behar dituela.

Kooperazio Bulegoak solidaritate jarduerak egiten dituzten ikasleen jarraipena egiten du, boluntariotza agentziekin (Bolunta edo Gizalde) elkarlanean antolatzen du ikasleek alde aurretik jasotzen duten prestakuntza, harremanak ditu gizarte erakunde edo GKEekin eta **kredituak aitortzeko ziurtagiria** ematen du.

Jarduera horren esparruan, 2014/2015 urteetan 36 hitzarmen mantendu dira: UPV/EHUK eta hainbat gizarte erakunde eta elkartetan sinatu dituzte, eta 489 ikasle eta 23 ikastetxek parte hartu dute. Guztira 1.629,65 kreditu aitortu zaizkie.

3. 2. Medikuntzako ikasleen boluntariotza programa autokudeatua

Ikasleek "autokudeatutako" jarduerak ahalbidetu egiten dute Unibertsitate Boluntariotzaren egitura sendotzea, koordinazio tresna berriak sortzea bultzatuz eta unibertsitate jardueran aitortzea sustatuz.

Aurreko ikasturtean bezala, aurtengoan ere Bilboko Irakasle Eskolako Errektoreordetzari azaldu dio prestakuntza osagarria eman behar dela lehenengo sorospenen esparruan, ikasleek baliabideak izan ditzaten ikasgeletan edo etorkizunean gizarte hezitzaile gisa lan egiten duten erakundeetan sor daitezkeen arazoei aurre egiteko.

Martxoaren 25ean, Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzak bidea eman zuen **Jornada de Primeros Auxilios** jardunaldia antolatzeko. 3 orduko iraupena izan zuen. Han, Medikuntza Fakultateko ikasle talde bat arduratu zen, borondatez eta solidaritatez, jardunaldiaren programa eta garapena definitzeaz. 41 ikasle parte hartu zuten (% 90 emakumeak ziren), denak ere Bilboko Irakasle Eskolakoak. Parte hartu zuten ikasleen balorazioa inkesten bidez egin zen, eta azaltzen du jasotako prestakuntza egokia izan zela; bestalde, hizlari aritu ziren pertsona boluntarioek azaldu dute jarduera honek aberastu egin duela beren prestakuntza pertsona legez eta beren prestakuntza medikuntzako profesional legez. Balorazioa oso ona izan da.

3. 3. Boluntariotzaren Azoka

Gizarte eta boluntariotza erakundeak unibertsitate campusean egotea gakoa da unibertsitatearen gizarte konpromisoan. Boluntariotzaren Azokaren helburua da gizarte erakundeak eta unibertsitateko ikasleen arteko topagune izatea, ikasleak esparru horretan sentibilizatzeko eta informazioa eta prestakuntza emateko.

Honako helburu hauek ditu: gizarte partaidetza sustatzea unibertsitate komunitatean; gizarte erakundeek gure inguruan egiten duten lana ezagutaraztea; boluntarioek egindako lana aitortzen laguntzea; eta boluntariotza solidarioari lotutako balioak (konpromisoa, gizarte erantzukizuna, solidaritatea...) zabaltzea.

2015eko apirilaren 22an egin zen [Boluntariotzaren Azoka](#) 3 campusetan.

[60 erakunde](#) baino gehiago gonbidatu dira urtero parte hartzera.

Halaber, **azaroaren 20an, Gizalderekin** lankidetzan (Gipuzkoako Boluntariotzaren Agentzia) Boluntariotzaren Agentzia bat antolatuko da. Honako erakunde hauek hartuko dute parte:

- 1. DYA Gipuzkoa
- 2. Gurutze Gorria
- 3. Atzegi
- 4. AFAGI
- 5. RAIS Euskadi
- 6. Oxfam Intermor
- 7. Alboan
- 8. Intered
- 9. Hazi eta Ikasi
- 10. Greenpeace
- 11. Mugarik Gabeko Ingenieritza
- 12. Kemen
- 13. Elkarrekin bizi
- 14. SOS arrazakeria
- 15. Kaleko elkartasun eta kultur elkartea
- 16. Gizalde

Erakundeen *standekin* batera, DYAk (laguntza humanitarioko eta gizarte langintzako elkartea) RCPak antolatu ditu; Intermon Oxfam (pobreziaren aurkako laguntza ematen duen elkartea) bidezko produktuen erakusketa egin du; Interdek (hezuntza inklusibo sustatzeko GKEa) kooperazio jokoak egin ditu; *Atzegik* (ezintasun intelektuala duten pertsonen laguntzako elkartea) argazki erakusketa egin du; *Kaleko* Elkarteak (kaleko solidaritatea eta kultura lantzen du) liburuak oparitu ditu; Gizaldek (Gipuzkoako Boluntariotzaren Agentzia) bidezko merkataritzako kafea eta gailetak eman ditu dastatzeko.

3. 4. Babesa gizarte erakundeekiko lankidetzaren hitzarmenei

Gure inguruko gizarte erakundeekin eginiko lanak ahalbidetu egiten digu Giza Garapen Iraunkorra unibertsitatara hurbiltzea. Ildo horretatik, honako hauek egin ditugu:

UNIKIDE programa

Unikide programa 2012an sortu zen, Bizkaiko Boluntak (Boluntariotzaren eta Gizarte Partaidetzaren Agentzia) eta UPV/EHUko Gizarte Erantzukizunaren eta Proiektzio Unibertsitarioaren Errektoreordetzak sustatuta. Hitzarmen honen helburua da UPV/EHUko gizarte partaidetza unibertsitarioa sustatzea Bizkaiko unibertsitate campusean. Bada, EHUko Bizkaiko Campuseko ikastegietan elkarteak eta boluntariotzaren ehundura indartzeko plan bateratu bat sortzea ekarri du.

— <http://www.bolunta.org/unikide/>

Gizarte erakundeekin batera egindako jarduerak

- Zuzeneko harremana dago [boluntariotzarekin](#), ingurumenarekin eta hondakinen kudeaketarekin lotura duten gizarte erakundeekin.
- Errektoreordetzak laguntza etengabea ematen die gure unibertsitate komunitatearekin lotutako elkartei, eta horiek sentsibilitate berezia agertzen dute solidaritatearekin; esate baterako, "Pobreza y mujer" ipuin laburren lehiaketa aipa daiteke, UPV/EHUko % 0,7 Solidaritate Funtza AZP II (ASF07)-k antolatuta. Lehiaketa horretan unibertsitate komunitateak parte hartzen du: 109 lan aurkeztu dira, 23 euskaraz eta 86 gaztelaniaz. Elkartearen webgunean argitaratu dira, eta 6 sari emakumei eman zaizkie — <http://www.ehu.es/rowupv07/fondoupv07.htm>
- Ondoz ondoko bigarren urtez, Zinema Ikusezinaren esparruan, KCD Kultura, Comunicación y Desarrollo GKEarekin lankidetzan, "Concurso de Cortometrajes Invisible Express" lehiaketa antolatu da unibertsitateko ikasleei begira. Lehiaketa horren helburua da unibertsitateko kideen artean ikus-entzunezko tresnen erabilera bultzatzea, balio positibo eta solidarioak transmititzeko. Zinema Ikusezinaren "Film sozialak" Nazioarteko Jaialdiaren aurrerapena da: Bilbon egingo da horren seigarren edizioa, urriaren 6tik 13ra bitartean. "Un juego, una elección" film laburra saritu zen (Invisible Expresseko epaimahaiaren saria), eta 2014ko urriaren 13an Golem Alhóndiga zinemaren eman zuten, Zinema Ikusezinaren "Film Sozialak" Nazioarteko 6. Jaialdiaren itxieran (Bilbo, 2014).

3. 5. Gizartearekin partekatzen

Gizartearekin ezagutza transferitzeari eta trukatzeari dagokionez, beharrezkotzat jo da pertsonen gaitasunak ematek harago joatea. Helburua da pertsona kontzienteak eta ahalmen kritikoa dutenak prestatzea, eraldatzeko.

Ildo horretatik, Roberto Bermejo irakaslearen **Handbook for a Sustainable Economy** liburuaren aurkezpenarekin eta zabalkundearen lagunduz. Liburu horrek bestelako ikuspegia dakar ingurumen arazoari aurre egiteko. 20 kapituluak islatu egiten dute nagusi den paradigmen izaera azientifikoa, eta naturaren antzera antolatu beharra, espezie gisa, gure etorkizuna bermatzeko; azken batean, kooperatzen ikastea da.

Jarduerak Eusko Jaurlaritzaren finantzazioari esker egin dira; programa kontratuaren bidez ordaindu da, eta bide eman digu iraunkortasunari heltzeko, kudeaketaren, irakaskuntzaren, ikerketaren, prestakuntzaren eta gure unibertsitateko kideen sentsibilizazioaren bidez, gizartearekin loturak sendotuz.

Ezin dugu memoria hau amaitu gure unibertsitateko kide guztiei eta kanpoko agenteei eskerrak eman gabe; izan ere, haiei esker jarri dira martxan aurkeztutako ekintzak, eta haiei esker lan egiten da egunik egun, bizitzaren iraunkortasunarekin konpromiso handiagoa duen unibertsitatea eraikitzeko.

Pertsona horiei guztiei: eskerrik asko!



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea